

I. Encuentro de Comunidades Ciudadanas de energía ya constituidas o en proceso de constitución

El anexo “definiciones” de la Ley Foral Ley Foral 4/2022, de 22 de marzo, de Cambio Climático y Transición Energética establece el concepto “**Comunidad ciudadana de energía**”, como una entidad jurídica dedicada a una actividad de producción de energía a pequeña escala, constituida bajo una forma jurídica que permita la participación abierta y voluntaria, y que además se encuentre próxima al proyecto de energías renovables.

En dicha entidad se pueden integrar personas físicas y jurídicas tanto públicas como privadas (pymes y otro tipo de entidades cuya actividad económica no se desarrolle en el mercado eléctrico) sobre las que recaerá el efectivo control de la entidad. El objetivo principal es ofrecer beneficios medioambientales, económicos o sociales a sus miembros o a la localidad en la que desarrolla su actividad, más que generar una rentabilidad financiera.

Una comunidad ciudadana de energía puede participar en la generación, incluida la energía procedente de fuentes renovables, la distribución, el suministro, el consumo, la agregación, el almacenamiento de energía, la prestación de servicios de eficiencia energética, la prestación de servicios de recarga para vehículos eléctricos o de otros servicios energéticos destinados a los miembros de la comunidad o a su localidad.

En los últimos meses se han ido constituyendo diversas entidades jurídicas, mediante el impulso e iniciativa ciudadana o la iniciativa de entidades locales, otras administraciones públicas o agentes. A su vez, se han puesto en marcha otras tantas iniciativas que en estos momentos están iniciando el camino para su constitución como entidad jurídica.

Este I. encuentro de comunidades ciudadanas de energía pretende establecer relaciones y nexos de unión entre todas estas iniciativas y las personas que las componen. Con el objetivo de poder impulsar la generación distribuida y el uso de los recursos locales renovables mediante la toma de decisión y participación activa de las personas y entidades locales, impulsando así el empoderamiento energético de la ciudadanía y la población local. En definitiva, avanzar en una nueva cultura energética en la sociedad.

El I. encuentro también tiene como objetivo la posible creación y el tejido de una red que sirva para el apoyo mutuo y la intercooperación entre estas iniciativas. A su vez, mediante un taller participativo, se pretende identificar las necesidades de estas iniciativas que se encuentran en diferentes fases o momentos para posteriormente

priorizar las posibles líneas de acción identificadas, siempre desde el punto de vista de las propias iniciativas.

Por último, y para no perder las buenas costumbres, no puede faltar una buena comida con productos locales y de kilómetro cero, con una posterior sobremesa para posibilitar el vínculo y los nexos de unión entre las diferentes iniciativas y personas participantes.

Azkenik, eta ohitura onak ez galtzeko, ezin da falta jaki on bat tokiko produktuekin eta zero kilometroko produktuekin, bazkalondoko batekin, ekimen eta pertsona parte-hartzaileen arteko lotura eta loturak ahalbidetzeko.

La Agenda propuesta para este I. encuentro de comunidades ciudadanas de energía es la siguiente:

Día: Sábado 26 de noviembre

Lugares: Lizarraga-Ergoiena y Eco-camping de Arbizu

Actividades:

- **10:00 a 12:00** Visita guiada a la microred de [Lizarraga-Ergoinea](#) dinamizada por la Agencia de desarrollo de la Sakana.
- **12:00 a 14:00** Taller participativo dinamizado por la consultora [Artelan](#) en el [Eco camping de Arbizu](#)
- **14:00 a 17:00** Comida y posterior sobremesa en el [Eco camping de Arbizu](#)

El formulario de inscripción estará disponible hasta las 23:59 horas del lunes 21 de noviembre. Por favor, en caso de estar interesado/a inscríbete a la mayor brevedad posible y no lo dejes para el último día.

Para el sábado 26 de noviembre, se ruega ser eficientes en los desplazamientos, y en la medida de lo posible compartir vehículos entre las personas que os aceréis tanto a la microred de Lizarraga como al camping de Arbizu.

Muchas gracias y un saludo

Dagoeneko eratuta dauden edo eratzen ari diren Herritarren Energia Komunitateen I. Topaketa

Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen “definizioak” eranskinak “**Herritarren Energia Komunitatea**” kontzeptua ezartzen du, borondatezko partaidetza irekirako aukera ematen duen erakunde juridiko gisa, energia eskala txikian ekoizten aritzen dena eta energia berriztagarrien proiektutik hurbil dagoena.

Erakunde horretako kide pertsona fisikoak eta juridikoak izan daitezke, publikoak nahiz pribatuak (enpresa txiki eta ertainen elkarteak eta bestelako erakundeak, haien jarduera ekonomikoa merkatu elektrikoan kokatzen ez bada), erakundearen gaineko benetako kontrola izanen dutenak. Komunitate hauen helburu nagusia da ingurumen, ekonomia edo gizarte onurak lortzea beren kideei edo jarduten duten herriari, finantza errentagarritasunaren gainetik.

Herritarren energia-komunitate batek partaidetza izaten ahal du energia sorkuntzan, barne dela iturri berriztagarrietatik sortutako energia, hala nola banaketan, horniduran, kontsumoan, agregazioan, energiaren biltegitratzean, energia-efizientziako zerbitzuak ematen, ibilgailu elektrikoek karga-zerbitzuak ematen edo bestelako energia-zerbitzuak ematen, komunitateko kideentzat edo herriarentzat.

Azken hilabeteetan, hainbat entitate juridiko sortu dira, herritarren bultzada eta ekimenaren bidez edo toki entitateen edo beste administrazio publiko edo eragile ezberdinen ekimenaren bidez. Era berean, beste hainbeste ekimen jarri dira abian, eta une honetan erakunde juridiko gisa eratzeko bidea egiten ari dira.

Herritarren Energia Komunitateen I. Topaketa honen bidez, harremanak eta loturak eraiki nahi dira ekimen horien guztien eta horiek osatzen dituzten pertsonen artean. Tokiko pertsona eta erakundeek erabakiak hartuz eta sistema energetikoan aktiboki parte hartuz, sorkuntza banatua eta tokiko baliabide berriztagarrien erabilera bultzatu ahal izateko, eta, hala, herritarren eta tokiko biztanleen energia-ahalduntzea bultzatzeko. Azken batean, gizartearen energia-kultura berri batean aurrera egiteko.

I. topaketaren helburua da, halaber, sare bat sortzea eta egituratzea, ekimen horien arteko lankidetzeta eta elkarlana bultzatuz. Era berean, parte hartzeko tailer baten bidez, hainbat fase edo unetan dauden ekimen horien beharrak identifikatu nahi dira, gero identifikatu diren balizko ekintza-ildoak lehenesteko, betiere ekimenen beraien ikuspuntutik.

Azkenik, eta ohitura onak ez galtzeko, ezin da falta bazkari on bat tokiko eta zero kilometroko produktuekin, bazkalostean, ekimen eta pertsona parte-hartzaileen arteko harremana eta loturak ahalbidetzeko.

Herritarren Energia Komunitateen I. Topaketarako proposatutako agenda:

Eguna: Azaroak 26 larunbatarekin

Tokiak: Lizarraga-Ergoiena y Arbizuko Eko kanpina

Jarduerak:

- **10:00etatik 12:00etara**, [Lizarraga-Ergoienako](#) mikrosarera bisita gidatua, Sakanako Garapen Agentziaren eskutik.
- **12:00etatik 14:00etara**, [Artelan](#) aholkularitzaren laguntzarekin [Arbizuko Eko kanpinean](#) dinamizatutako tailer parte-hartzailea
- **14:00etatik 17:00etara** Bazkaria eta bazkalostekoa [Arbizuko Eko kanpinean](#)

Izena emateko inprimakia azaroaren 21eko 23:59 arte egongo da eskuragarri. Interesatuta bazaude, eman izena lehenbailehen, eta ez utzi azken egunerako.

Azaroaren 26rako (larunbata), joan-etorrietan eraginkorrak izatea eta, ahal den neurrian, Lizarragako mikrosarera eta Arbizuko kanpinera hurbiltzen zareten pertsonen artean ibilgailuak partekatzea eskatzen dizuegu.

Eskerrik asko.